

Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 3/2017 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 17koa. honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumene-koak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzen da.

ZIOEN AZALPENA

Kontratazio publikoa garrantzi handiko jarduera bat da, are garrantzitsuagoa kontuan hartzen bada botere publikoei aukera ematen diela zeharkako politikak aurrera eramateko eta, kontratu bakoi-tzak berez duen helburu partikularra gorabehera, interes orokorreko helburuak lortzeko, betiere kontratuaren kalitatea hobetzeko eta kontratazio publikoa arautzen duten printzipio orokorrak bete beharrak ezarritako mugen barruan.

Botere publikoek zeharkako politika horiek garatzeko duten ahalmen hori 2004/18/EE Zuzentarauak jaso zuen. Gero, 2014/24/EB Zuzentarauak indargabetu zuen. Azken horren arabera, kontratazio-prozeduretan klausula sozialak deitutakoak (sozialak, ingurumene-koak eta beste politika sozial batzuei dagozkienak) sartu ahal dira, eta horretarako baldintzak aurreko zuzenturuan ezarritakoen antzekoak dira; kontratisten aurreaukeraketa egiteko irizpideei dagokienez, zein kontratuak adjudikatzeko irizpideei eta kontratuak gauzatzeko baldintza bereziei dagokienez sartu ahal dira, kontratazio publikoaren berezko helburuekin bat egiten duten beste xede publiko batzuk lortzeko bide gisa.

Bide hori berretsi du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak. Auzitegi horrek Europako Zuzenbidea interpretatzen du eta argi onartu du klausula sozial horiek sartzeko aukera, betiere gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak betetzen badira, eta eskaintzak ebaluatzen direnean lehia egiazkoa dela bermatzen bada (besteak beste, 2003ko abenduaren 4ko epaia —C-448/01 auzia— eta 2012ko maiatzaren 10eko epaia —C-368/2010—).

Bestalde, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak klausula sozial horiek sartzeko aukera ematen duten mekanismoak ezartzen ditu. Zehazki, 150. eta 118. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eskaintzak ebaluatzeko, kontratuaren xede-ari zuzenean lotuta egonda, kontratuaren espezifikazioetan definitutako beharrezanekin bat datozen baldintza sozialei erantzutearekin zerikusia duten irizpideak sartu ahal dira. Halaber, kontratua gauzateari buruzko baldintza bereziak ezarri ahal dira, ingurumen- edo gizarte-kontuei buruzkoak edo politika publikoei dagozkien beste batzuk.

Aurreikuspen horiek Estatuko oinarrizko legeria osatzen dute kontratuen arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio arlo horren inguruko arauak garatzea, Espainiako Konstituzioaren 149.18 artikuluan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 11.1.b) artikuluan eta Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Lurralde historikoetako foru organoei, berriz, arauak horiek betearaztea dagokie, aipatutako araudian oinarrituta.

Aurrekoa kontuan hartuta, duela gutxi, Eusko Legebiltzarrak apirilaren 7ko 3/2016 Legea onartu du, kontratazio publikoan zerbait klausula sozial sartzeko. Lege horren aplikazio-eremu subjektiboan euskal sektore publikoa osatzen duten entitateak sartzen dira, eta, besteak beste, lurralde historikoetako foru-aldundiak eta haien mendeko erakunde instituzionalak eta sozietate publikoak. Lege horren azken xedapenetatik bigarrenean ezartzen da aipatutako entitateek beharrezko tresna juridikoak hartuko dituztela beren kontratazio-prozeduretan lege honetako aurreikuspenak gehitzeko.

Beraz, goian azaldutakoa kontuan hartuta, gaur egun ezin da zalantzan jarri kontratu publikoak arautzen dituzten agirietan klau-

Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 3/2017, de 17 de enero, que aprueba el reglamento ejecutivo para la incorporación de cláusulas sociales, medio ambientales y relativas a otras políticas públicas en el procedimiento de contratación de la Diputación Foral de Bizkaia.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La contratación pública es una actividad económica de gran trascendencia que ofrece a los poderes públicos la posibilidad de llevar a cabo políticas transversales e incidir en la consecución de fines públicos de interés general, distintos del propio objeto de cada contrato considerado individualmente, pero con la virtualidad de mejorar la calidad del mismo y sin exceder los límites que impone el obligado respeto a los principios generales que rigen la contratación pública.

Esta capacidad de los poderes públicos para llevar a cabo esas políticas transversales fue recogida por la Directiva 2004/18/CE que ha sido recientemente derogada por la Directiva 2014/24/UE y que, a su vez, recoge la posibilidad de incorporar las comúnmente denominadas cláusulas sociales (sociales, medioambientales y relativas a otras políticas sociales) a los procedimientos de contratación en parecidos términos que la anterior directiva, tanto con relación a los criterios de preselección de los contratistas como con relación a los criterios de adjudicación de los contratos y las condiciones especiales de ejecución, como medio o forma de materializar la consecución de otros fines públicos concurrentes con los propios de la contratación pública.

En este sentido se pronuncia la Jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea que interpreta el Derecho Europeo y que claramente admite la inclusión de estas cláusulas sociales, siempre y cuando se garantice el respeto a los principios de transparencia, no discriminación e igualdad de trato, así como la evaluación de las ofertas en condiciones de competencia efectiva (Entre ellas, la Sentencia de 4 de diciembre de 2003, C-448/01, y Sentencia de 10 de mayo de 2012, C-368/2010).

Por su parte, el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, establece mecanismos que permiten introducir las denominadas cláusulas sociales; en concreto sus artículos 150 y 118 permiten incorporar criterios de valoración de la oferta que, vinculados al objeto del contrato, se encuentren al mismo tiempo vinculados con la satisfacción de exigencias sociales que respondan a las necesidades definidas en las especificaciones del contrato, así como condiciones especiales de ejecución de los mismos que pueden referirse a consideraciones de tipo medioambiental o de tipo social o de otra tipología relativa a las políticas públicas.

Las previsiones anteriores constituyen legislación básica del Estado en materia de contratos y su desarrollo normativo corresponde a la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 149.18.º de la Constitución Española, el artículo 11.1.b) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y en el artículo 6.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en tanto que a los Órganos Forales de los Territorios Históricos les corresponde la ejecución con apoyo en la misma normativa.

Sobre esta base, el Parlamento Vasco ha aprobado recientemente la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública, que incluye, en su ámbito subjetivo de aplicación, a las entidades que integran el sector público vasco y, entre ellas, a las diputaciones forales de cada uno de los territorios históricos y los entes institucionales y sociedades públicas de ellas dependientes, y ordena en su disposición final segunda que las entidades afectadas adopten los instrumentos jurídicos necesarios para incorporar a sus procedimientos de contratación las previsiones de la ley.

Por tanto y de acuerdo con lo explicado anteriormente, en la actualidad no es discutible la posibilidad de incluir las denomina-

sula sozialak (zentzurik zabalenean) sartzeko aukera. Hala ere, arautzen dituen arautegi berezian zehaztutako mugak kontuan hartuta sartu behar dira klausula horiek, eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat eta beharrezkotzat jo du erregelamendu bete-arazle bat egitea, lehen aipaturiko arautegia aplikatu eta betearazteko. Erregelamendu horrek aukera eman behar die kontratazio publikoan ari diren eragileei klausula horiek behar bezala eta legean ezarritakoa erabat beteta txertatzeko kontratazio-prozeduran.

Horrenbestez, aipatutako legerian xedatutakoa betetzeko eta, batetik, Foru Administrazio honen kontratazio publikoaren kudeaketa hobetzeko —administrazioan bere politika publikoen eraginkortasuna areagotzeko sinergiak sartuz— eta, bestetik, gobernu-jardunean erabateko gardentasuna lortzeko, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak emandako ahalmek erabilia, proposamen hau aurkezten zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari, onar dezan

FORU DEKRETUA

Artikulu bakarra. Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoaren prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzen da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Jarraibideak eta gida praktikoa egitea

Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusiak beharrezkoak diren irizpideak eta jarraibideak emango ditu foru dekretu honetan eta haren bidez onartutako erregelamenduan xedatutakoa aplikatzeko, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoarekin bat etorrita.

Halaber, Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusiak kontratazio administratiborako gida praktikoa bat egingo du, Bizkaiko Foru Aldundiko kudeatzaileentzat. Gida horretan, aurreko paragrafoan ezarritako irizpideak eta jarraibideak jasoko dira, baita kontratazio publikorako klausulen agirietan sar daitezkeen klausula sozialen, ingurumenekoen eta beste politika publiko batzuei dagozkien ereduak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko gardentasunaren web-orrian argitaratuko da gida praktikoa hau.

Bigarrena.—Kontratuen erreserba

Kontratuen erreserbari dagokionez, foru-sektore publikoaren kontratazioan helburu sozialak sustatzeko bide gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 108/2016 Foru Dekretuak emandako idazketa hartuko da kontuan.

Hirugarrena.—Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 17an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

das cláusulas sociales (en sentido amplio) en los pliegos que rigen los contratos públicos. No obstante, ésta incorporación debe realizarse dentro de los límites prefijados por la normativa específica que los regulan y, por ello, la Diputación Foral de Bizkaia entiende obligado y oportuno, dictar un reglamento ejecutivo o de ejecución, para la aplicación y ejecución de la normativa anteriormente citada, que permita a los agentes implicados en la contratación pública incorporar dichas cláusulas al procedimiento de contratación con garantía de acierto y sujeción plena a la ley.

Consecuentemente, en cumplimiento de lo dispuesto en la legislación precitada y con la finalidad, por un lado, de mejorar la gestión de la contratación pública de esta Administración Foral incorporando a la misma sinergias que redunden en la eficiencia de sus políticas públicas, y por otro, de alcanzar la plena transparencia en su acción de gobierno, en virtud de las facultades conferidas en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de

DECRETO FORAL

Artículo único. Aprobar el Reglamento ejecutivo para la incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en el procedimiento de contratación pública de la Diputación Foral de Bizkaia, que se incorpora en el Anexo adjunto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Elaboración de instrucciones y guía práctica

El Director General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias dictará los criterios e instrucciones que sean precisas para la aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral y en el Reglamento que por medio de él se aprueba, de conformidad con lo dispuesto en la legislación de contratos del sector público.

Asimismo, la Dirección General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias elaborará una guía práctica para la contratación administrativa, destinada al personal gestor de la Diputación Foral de Bizkaia, en la que se recogerán oportunamente los criterios e instrucciones previstos en el párrafo anterior y los modelos de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas que se consideren susceptibles de incorporar a los pliegos de cláusulas que rigen la contratación pública.

Esta guía práctica será publicada en el Portal de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

Segunda.—Reserva de contratos

En cuanto a la reserva de contratos, como medio de fomento de los objetivos sociales en la contratación del sector público foral, se estará a lo dispuesto en el artículo 41 del Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, en su redacción dada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 108/2016, de 14 de junio.

Tercera.—Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 17 de enero de 2017.

La diputada foral de Administración Pública
y Relaciones Institucionales,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

ERANSKINA

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN PROZEDURAN KLAUSULA SOZIALAK,
INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA
PUBLIKO BATZUEI DAGOZKIENAK SARTZEKO
ERREGELAMENDU BETEARAZLEA**

1. artikulua.—Xedea eta eremu subjektiboa

Erregelamendu betearazle honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoaren prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko kontuan hartu beharreko printzipioak eta irizpideak jasotzea, gogoko ordenamendu juridikoarekin bat etorrira.

2. artikulua.—Printzipio informatzaileak

a) Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko, Europar Batasuneko kontratazio publikoari buruzko araudian eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako oinarriko printzipioak bete behar dira. Hau da, aipatutako klausulak sartzeko, printzipio hauek errespetatu behar dira: lehia, lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, prozeduren publikitate eta gardentasuna eta lehiakideen arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna. Beren-beregi kanpo geratzen dira lurraldetasun irizpideak edo enpresa adjudikaziodunaren naziotasuna kontuan hartuta sartzen diren klausula sozialak.

Berdintasun, diskriminaziorik eza eta gardentasunaren printzipioak betetzeko, adjudikazio-irizpideak objektiboak izan behar dira, horrek bermatuko baitu eskaintzen alderaketa eta ebaluazioa modu eraginkorrean egiten direla, eta beraz, lehia egiazkoa dela.

Kontratazio organoak kontratu publiko bat adjudikatze prozeduraren fase guztietan bete beharko ditu printzipio horiek

b) Lotura bat egon behar da klausula sozialaren eta kontratuaren xedearen artean. Lotura hori edozein alderditan eta kontratuaren jarduera-zikloetako edozein fasetan eman daiteke, eta ekoizpenaren, prestazioaren edo merkaturatzearen prozesu espezifikoan parte hartzen duten faktore guztiak har ditzake.

c) Proporzionaltasuna egon behar da klausula sozialen, ingurumenekoen eta beste politika publiko batzuei dagozkien eta kontratuaren xedearen artean. Horretarako, klausularen definizioan kontuan hartu beharko dira hauek: kontratuaren xedea, kontratuaren zenbatekoa eta iraupena, kontratua garatzen den jardueraren sektorea eta kontratu bakoitzaren helburua, izaera eta edukia.

3. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak enpresa kontratista aukeratzeko fasean sartzea

1. Klausula administratibo berezien agirietan alderdi sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak balioesten dituzten adjudikazio-irizpideak sartu ahal izango dira (bat edo batzuk), betiere lotura badute kontratuaren xedearekin.

2. Adjudikazio-irizpideek balioesten dituzten alderdiak zehazki adieraziko dira, enpresa lizitatzailer guztiek baldintza berberetan izan dezaten kontuan hartuko diren alderdien berri, eta modu homogeneoan interpreta ditzaten adjudikazio-irizpidea eta irizpide hori ebaluatze modua (objektiboa izan behar da).

3. Adjudikazio-irizpideak kontratazio publikoaren oinarri diren tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, proporzionaltasunaren eta gardentasunaren printzipioen arabera zehaztu behar dira.

4. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak kontratu publikoak gauzatzeko fasean sartzea

1. Klausula administratibo berezien agirietan kontratua gauzatzeko baldintza bereziak sartu ahal izango dira, ingurumen- edo gizarte-kontuei buruzkoak edo politika publikoei dagozkien beste batzuk.

2. Klausula administratibo berezien agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du bete ez den kontratuko betebeharra funtsezkoa denean kontratuaren xedea betetzeko, Sektore Publikoko Kontra-

ANEXO

**REGLAMENTO EJECUTIVO PARA LA INCORPORACIÓN
DE CLÁUSULAS SOCIALES, MEDIOAMBIENTALES
Y RELATIVAS A OTRAS POLÍTICAS PÚBLICAS
EN EL PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN PÚBLICA
DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

Artículo 1.—Objeto y ámbito subjetivo

Es objeto de presente reglamento ejecutivo recoger los principios y criterios a considerar, de acuerdo con el ordenamiento jurídico superior, para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en el procedimiento de contratación pública de la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 2.—Principios informadores

a) La incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas ha de cumplir con los principios fundamentales de la normativa de la Unión Europea sobre contratación pública y del resto del ordenamiento jurídico. Esto es, dicha incorporación debe realizarse con salvaguarda de los principios de concurrencia, libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos y no discriminación e igualdad de trato entre los candidatos. Quedan excluidas expresamente las cláusulas sociales cuya incorporación se realice atendiendo a criterios de territorialidad, o nacionalidad de la empresa adjudicataria.

Los principios de igualdad, no discriminación y transparencia exigen que los criterios de adjudicación sean objetivos, lo que garantiza que la comparación y la evaluación de ofertas se hagan de manera efectiva y, por tanto, en condiciones de competencia efectiva.

Estos principios obligan al órgano de contratación en todas las fases del procedimiento de adjudicación de un contrato público

b) Debe existir vinculación entre la cláusula social y el objeto del contrato. Dicha vinculación puede darse en cualquiera de los aspectos y en cualquiera de las fases de los ciclos de actividad del contrato y comprender todos los factores que intervienen en el proceso específico de producción, prestación o comercialización.

c) Debe existir proporcionalidad entre la cláusula social, medioambiental o relativa a otras políticas públicas y el objeto del contrato. Para ello la definición de la cláusula deberá adaptarse al objeto del contrato, a su importe y duración, así como al sector de la actividad en el que se desarrolla, a la finalidad, a la naturaleza y al contenido de cada contrato.

Artículo 3.—Incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en la fase de selección de la empresa contratista

1. Los pliegos de cláusulas administrativa particulares podrán incorporar uno o varios criterios de adjudicación que valoren aspectos medioambientales, sociales u otros relativos a otras políticas públicas, siempre y cuando se encuentren vinculados al objeto del contrato.

2. Los aspectos valorados por los criterios de adjudicación se detallarán con precisión, de forma que todas las empresas licitadoras puedan conocer en condiciones de igualdad los aspectos a valorar e interpreten de forma homogénea el criterio de adjudicación y la forma de valoración que ha de ser objetiva.

3. Los criterios de adjudicación deberán especificarse de conformidad con los principios de igualdad de trato, de no discriminación, de proporcionalidad y de transparencia que rigen la contratación pública.

Artículo 4.—Incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en la fase de ejecución de los contratos públicos

1. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares podrán incorporar condiciones especiales de ejecución que se refieran a consideraciones de tipo social, medioambiental o relativas a otras políticas públicas.

2. El incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución previstas en los pliegos de cláusulas administrativas particulares supondrá la resolución del contrato conforme a lo dispuesto en el artículo 223.f) del Texto Refundido de la Ley de Contratos del

tuen Legearen testu bategineko 223.f) artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainerako kasuetan, testu bategin bereko 212.1 artikuluan ezarritako zigorra jartzea eragingo du.

5. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak nola betetzen ari diren jakiteko jarraipena

1. Kontratazio-organoak kontratua nola gauzaten ari den ikuskatzeko eta itundutako prestazioa behar bezala egiten ari dela bermatzeko izendatutako arduradunak aldian aldiko jarraipena egingo du pertsona edo erakunde adjudikaziodunak klausula sozialak, ingurumenekoak edo beste politika publiko batzuei dagozkienak betetzeari dagokionez hartutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

2. Klausula soziala hauek betetzen ez direnean, kontratuaren arduradunak egoera horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta, beharrezkoa bada, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

(I-14)

Formalizatutako kontratu baten iragarkia: gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako esku-hartze programa egiteko zerbitzu-kontratua

1. *Erakunde adjudikatzailea*
 - a) Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kontratazio Zerbitzua.
 - c) Espediente zenbakia: 2016/051/071/09.
 - d) Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.bizkaia.eus/contratospublicos.
2. *Kontratuaren xedea*
 - a) Mota: Zerbitzuak.
 - b) Deskripzioa: gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako esku-hartze programa.
 - c) Loteak (halakorik badago): ez.
 - d) CPV (nomenklatura erreferentzia): 85320000-8.
 - e) Esparru akordioa (hala badagokio): ez.
 - f) Erosteko sistema dinamikoa (hala badagokio): ez.
 - g) Litzitazio iragarkia argitaratu den aldizkaria: EBAOa.
 - h) Litzitazio-iragarkia argitaratu den data: 2016ko uztailaren 23an.
3. *Izapidetzea eta prozedura*
 - a) Izapidetzea: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia.
4. *Kontratuaren balio zenbatetsia*
— 2.661.120,00 euro.
5. *Litzitazioaren oinarrizko aurrekontua: zenbateko garbia*
— Zenbateko garbia: 1.108.800,00 euro.
— Zenbateko osoa: 1.219.680,00 euro.
6. *Kontratua formalizatzea*
 - a) Adjudikazio-data: 2016ko azaroaren 24an.
 - b) Kontratuaren formalizazio-data: 2016ko abenduaren 29an.
 - c) Kontratista: Basauriko Berriztu Hezkuntza Elkarte.
 - d) Adjudikazioaren zenbatekoa edo kanona:
— Zenbateko garbia: 1.108.000,00 euro.
— Zenbateko osoa: 1.108.000,00 euro.
 - e) Eskaintza adjudikaziodunaren abantailak: Eskaintza ekonomikorik onuragarriena.

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 9an.—Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Ibone Bengoetxea Otaolea

(I-15)

Sector Público, cuando la obligación contractual incumplida sea esencial para el cumplimiento del objeto del contrato. En el resto de casos supondrá la imposición de la penalidad prevista en el artículo 212.1 del mismo Texto Refundido.

Artículo 5.—Seguimiento del cumplimiento de las cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas

1. La persona responsable designada por el órgano de contratación para la supervisión de la ejecución del contrato y garantía de la correcta realización de la prestación pactada realizará el seguimiento periódico del cumplimiento de las obligaciones asumidas por la persona o entidad adjudicataria con relación, asimismo, al cumplimiento de las cláusulas relativas a consideraciones de tipo social, medioambiental o de otra tipología de políticas públicas.

2. La persona responsable del contrato informará al órgano de contratación sobre los posibles incumplimientos de estas cláusulas sociales y, en su caso, propondrá el inicio del procedimiento de imposición de penalidades o de resolución del contrato.

(I-14)

Anuncio de formalización de contrato de servicios de programa de intervención familiar especializado en violencia filio-parental.

1. *Entidad adjudicadora*
 - a) Organismo: Diputación Foral de Bizkaia.
 - b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Contratación.
 - c) Número de expediente: 2016/051/071/09.
 - d) Dirección de Internet del perfil del contratante: www.bizkaia.eus/contratospublicos.
2. *Objeto del contrato*
 - a) Tipo: Servicios.
 - b) Descripción: Programa de intervención familiar especializado en violencia filio-parental.
 - c) Lote (en su caso): No.
 - d) CPV (Referencia de Nomenclatura): 85320000-8.
 - e) Acuerdo marco (si procede): No.
 - f) Sistema dinámico de adquisiciones (si procede): No.
 - g) Medio de publicación del anuncio de licitación: DOUE.
 - h) Fecha de publicación del anuncio de licitación: 23 de julio de 2016.
3. *Tramitación y procedimiento*
 - a) Tramitación: Ordinaria.
 - b) Procedimiento: Abierto.
4. *Valor estimado del contrato*
— 2.661.120,00 euros.
5. *Presupuesto base de licitación*
— Importe neto: 1.108.800,00 euros.
— Importe total 1.219.680,00 euros.
6. *Formalización del contrato*
 - a) Fecha de adjudicación: 24 de noviembre de 2016.
 - b) Fecha de formalización del contrato: 29 de diciembre de 2016.
 - c) Contratista: Asociación Educativa Berriztu de Basauri.
 - d) Importe o canon de adjudicación:
— Importe Neto: 1.108.000,00 euros.
— Importe total 1.108.000,00 euros.
 - e) Ventajas de la oferta adjudicataria: Oferta económicamente más ventajosa.

En Bilbao, a 9 de enero de 2017.—La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea Otaolea

(I-15)